



162/2022 EBAZPENA, EKAINAREN 7KOA, JUSTIZIAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZERBITZU EGINKIZUNA ARAUTZEN DUENA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOAN HUTSIK DAUDEN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO MODU GISA.

Botere Judizialari buruzko uztailaren leko 6/1985 Lege Organikoaren 527. artikulua zerbitzu eginkizunak eta ordezkapena ezartzen ditu lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko bitarteko gisa. Bestalde, Justizia Administrazioan sartzea, bertako lanpostuak betetzea eta bertako funtzionarioen lanbide-igoera arautzeko Erregelamendua onesten duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, III. tituluaren IV. kapituluan, hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzeko moduak garatzen ditu; horien artean, zerbitzu eginkizunak eta ordezkapena daude.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, Justizia eta Barneko zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 780/2012 Ebazpenak, Justizia Administrazioko funtzionarioen goi-mailako kidegoetako ordezkapenak ordaintzeko prozedura eta sistema arautzen dituenak, sistema horri lehentasuna ematen dio lanpostu hutsak edo iraupen luzeko absentziak aldi baterako betetzeko orduan.

Gaur egun, egiaztatu da zerbitzu eginkizunen eskaerak pixkanaka ugaritu egin direla, familia sakabanaketak eta gizartean arreta berezia eskatzen duten bestelako egoera pertsonalak arintzeko. Horregatik, ebazpen honen helburua da langileak kudeatzeko tresna horren erabilera arautzea, arlo horretako estatuko araudiaren osagarri gisa.

Ondorioz, Justiziako Mahai Sektoriala osatzen duten erakunde sindikalekin negoziatu ondoren, eta baliatuz bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako organo batzuetako langileriaren arloko eskumenak zehazten dituen otsailaren 2leko 30/2005 Foru Dekretuak esleitutako eskumenak, eta bai Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 266/2019 Foru Dekretuak esleitutakoak,



EBAZTEN DUT:

Lehena.-Xedea eta aplikazio eremua.

Ebazpen honen xedea da zerbitzu eginkizunak emateko irizpideak eta prozedura ezartzea, Nafarroako Foru Komunitateko Justizia Administrazioan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzeko modu gisa, bat etorritz abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 73. artikuluan ezarritakoarekin (1451/2005 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Justizia Administrazioan sartzea, bertako lanpostuak betetzea eta bertako funtzionarioen lanbide-igoera arautzeko Erregelamendua onesten duena).

Bigarrena.- Zerbitzu eginkizunen bidez bete daitezkeen lanpostuak.

Zerbitzu eginkizunen bidez bete ahalko dira soilik honako arrazoi hauetako batengatik hutsik dauden lanpostuak:

- a) Erretiroagatik edo heriotzagatik sortutako lanpostu hutsak, behin betiko betetzeko hurrengo deialdian sartu behar direnak eta bulegoko langile titularrek ordezkapen bertikalaren bidez bete ez dituztenak.
- b) Lehiaketa prozedura bat ebatzi ondoren hutsik geratu diren eta bulegoko titularrek ordezkapen bertikalaren bidez bete ez dituzten lanpostu hutsak.

Hirugarrena.- Betebeharrak.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahalko dituzte zerbitzu eginkizunak:

- a) Karrerako funtzionarioa izatea eta behin betiko destinoa ukatzea.



- b) Eskaintzen den lanpostuaren kidego berean zerbitzu aktiboan egotea.
- c) Jatorrizko destinoan gutxienez sei hilabetez benetako zerbitzuak eman izana.
- d) Jatorrizko destinoaren eta eskatutako destinoaren artean gutxienez hogeita bost kilometroko distantzia egotea.

Baldintza horiek bete egin behar dira bai eskabidea aurkezten denean bai lanpostu hutsa betetzen denean.

Laugarrena.- Zerbitzu eginkizunen kasuak:

Justizia Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu eginkizunak eman ahalko ditu, eskaintza publikorik egon gabe eta seigarren puntuan ezarritako hurrenkeraren arabera, eskatzailea honako kasu hauetakoren batean dagoenean:

- a) Genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izatea.
Emakumearen aurkako indarkeriaren biktima diren funtzionarioen kasuan, zerbitzu eginkizunei lehentasuna emanen zaie, 1451/2005 Errege Dekretuaren 63. artikuluan ezarritako baldintzetan.
- b) Jatorrizko lanpostuan laneko jazarpena jasatea.
- c) Eskatzaileak iraupen luzeko gaixotasun larria izatea.
- d) Lehen mailako odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaide bat zaintzea, baldin eta gaixotasun larri luzea edo bere kabuz moldatzea eragozten dion mendekotasuna duen desgaitasuna badu. Egiaztatu egin beharko da ahaidea ezin dela eskatzailearen jatorrizko herrira joan, eta eskatzaileak zaindu egin behar duela.
- e) Familiako hauekin berrelkartzeagatik:
 - a. Aurrekoak, lehen mailako odol-ahaideak, zainketa bereziak behar dituztenak.
 - b. Ezkontidea, legez eraturako bikotekide egonkorra edo eskatzailearekin antzeko afektibitate- eta bizikidetzaharremana duen pertsona.



c. Ondorengoak, lehen mailako odol-ahaideak, adingabeak direnak.

f) Aurreko bi urteetan, gutxienez, Nafarroako Foru Komunitateko udalerriren batean helbidea eduki izana.

Adierazitako kasuak behar bezala egiaztatu beharko dira txostenak, ziurtagiriak edo behar bezala eguneratutako beste edozein frogabide aurkeztuta.

Genero indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo laneko jazarpenaren kasuetan, ez dira eskatuko ebazpen honen hirugarren puntuko a), c) eta d) letretan jasotako baldintzak.

Bosgarrena. Eskaerak.

Nafarroako Foru Komunitateko Justizia Administrazioan zerbitzu eginkizunen bidez lanpostu huts bat betetzeko interesa dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan edo [negociado.personal.dgjusticia@navarra.es](mailto:dnegociado.personal.dgjusticia@navarra.es) helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

Eskabideetan, interesdunak betetzen duen behin betiko destinoari buruzko informazioa jaso beharko da, bai eta bere asmoaren oinarri den egoera pertsonal edo familiarra ere (ebazpen honen laugarren puntuan zerrendatutako bat). Halaber, eskuratu nahi den zerbitzu eginkizunen barruti judiziala edo udalerrria adierazi behar da. Hori jaso ezean, ulertuko da interesduna Nafarroako Foru Komunitateko eremuko edozein lanpostu hutsetarako aurkezten dela.

Ildo horretan, eskabidearekin batera, kasu bakoitzean eskatutako baldintzak eta zirkunstantziak betetzen direla justifikatzeko behar diren agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Justizia Zuzendaritza Nagusiko organo eskudunak eskabide bakoitza helaraziko die, hamar eguneko epean, Nafarroako Justiziako Mahai Sektorialean ordezkaritza duten sindikatuei. Halaber, ebazpen

honetan ezarritako prozeduraren bidez betetzen diren plaza hutsen berri emanen zaie.

Seigarrena.- Esleitzeko irizpideak.

Ebazpen honen bigarren puntuan adierazitako lanposturen bat hutsik geratu bezain laster, lanpostu hori zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko eskainiko da, eskabideak aurkeztu diren hurrenkerari zorrotz jarraituz. Horretarako, ebazpen honen hirugarren puntuan zerrendatutako baldintza guztiak betetzen diren eguna hartuko da kontuan.

Aurreko irizpidea aplikatuta eskabideen artean berdinketa gertatzen bada, lehentasuna emanen zaio dagokion kidegoaren eskalafoian hobekien kokatuta dagoenari.

Lanpostu hutsak zerbitzu eginkizunen sistemaren bidez betetzeak lehentasuna izanen du lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko beste edozein moduren aurrean, destinoko zentro berean egindako ordezkapen bertikala izan ezik, betiere ebazpen honetan jasotako baldintzak eta kasuak betetzen badira.

Zazpigarrena. Uko egiteak.

Funtzionario batek, bere borondatez, zerbitzu eginkizunen eskaintza bat onartzen ez badu, edo, izendapena egin ondoren, horri uko egiten badio, ezin izanen du beste lanpostu bat eskatu sistema horren bidez, uko egiten dionetik urtebete igaro arte.

Zortzigarrena. Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtoa jartzen ahalko da, Nafarroako Gobernuko Lehendakariitzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko



urriaren leko 39/2015 Legearen 122.1 artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126.1.c) artikuluan xedatutakoarekin.

Xedapen ingargabetzailea.

Indargabetuta geratzen dira Justizia eta Barneko zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 780/2012 Ebazpenean (Justizia Administrazioko funtzionarioen goi mailako kidegoetako ordezkapenak ordaintzeko prozedura eta sistema arautzen dituen) eta hura aldatzen duten ondorengo ebazpenetan ebazpen honetan ezarritakoarekin bat ez datozen manu guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Ebazpen hau indarrean egonen da Nafarroako Gobernuaren Atarian (Justiziako Enplegu Publikoa, sarbide mugatua) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:
<http://portalempleado.admon-cfnavarra.es/inicio/justicia/justicia>.

JUSTIZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Rafael Sainz de Rozas Bedialauneta